

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 4/2018 Zerga premiazko araugintzako dekretua, azaroaren 13koa. Onestea Arabako zerga araudia egokitu dadila 2018 eta 2019ko ekitaldian energia elektrikoaren ekoizpen balioaren gaineko zergan eta zerga berezietan egin diren aldaketetara

Ekonomia Itunak 23 quater eta 33. artikuluetan ezartzen du energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga eta zerga bereziak zerga itunduak direla eta Estatuak aldi bakoitzean xedatzen dituen funtsezko arau substantibo eta formal berak aplikatuko zaizkiela, berariazko salbuespen batzuk gorabehera.

Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga abenduaren 27ko 15/2012 Legeak, iraunkortasun energetikorako neurri fiskalenak, sortu zuen. Uztailaren 19ko 24/2014 Foru Arauak, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergarenak, Arabako zerga sistemaren barruan txertatu zuen.

Oraintsu urriaren 5eko 15/2018 Errege Lege Dekretua, trantsizio energetikorako eta kontsumitzaileak babesteko presazko neurriena, onartu da; horren bidez hainbat neurri arautzen dira elektrizitatearen prezioaren gorakadari aurre egiteko, batetik, eta trantsizio energetikoa bultzatzeko, bestetik. Besteak beste, bonu sozial elektrikoak zabaltzen da eta berokuntzaren bonu soziala sortzen da, norberak sortzen duen energia elektriko ez saririk ez kargarik ordaindu gabe kontsumitzeko eskubidea ezartzen da (indargabeturik geratzen da norberak sortutako energia instalazioan bertan kontsumitzeagatik ordaindu beharreko karga), ibilgailu elektrikoak bultzatzen da, eta zerga kargak arintzen dira, elektrizitatearen handizkako merkatuko prezioen gorakada moteltzeko.

Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren inguruko neurriak direla eta, zerga horren kargatik salbuesten da eskari handiena dagoen sei hiletan, handizkako merkatuetako prezioak handienak izaten diren hiletan, alegia, sortzen eta sistema elektrikoan sartzen den elektrizitatea.

Horretarako, zerga oinarria eta zergaren araudian ezartzen diren ordainketa zatikatuen zenbatekoak kalkulatzeko arauak aldatzen dira 2018ko eta 2019ko ekitaldientarako.

Zerga bereziei dagokienez, salbuespen bat sartzen da hidrokarburoen gaineko zergan: salbuespena daude zentral elektrikoetan elektrizitatea sortzeko erabiltzen diren produktu energetikoak, eta sorkuntza konbinatuko zentraletan elektrizitatea eta beroa sortzeko erabiltzen direnak ere bai.

Ekonomia Itunak 23 quater eta 33. artikuluetan ezartzen duena bete behar denez gero, aldatuta horiek guztiak txertatu behar dira Arabako zerga ordenamenduan.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horren ondorioz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorak, Arabako zergarenak, 8. artikuluan eta abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenak, ematen dizkidaten eskumenez baliatuz, presako arrazoiak direla eta, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. 2018ko eta 2019ko ekitaldietan energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren zerga oinarria eta ordainketa zatikatuen zenbatekoak kalkulatzeko aplikatuko diren arau bereziak.

Bat. 2018ko ekitaldian energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren zerga oinarria eta ordainketa zatikatuen zenbatekoak kalkulatzeko aplikatuko diren arauak.

2018ko ekitaldian hauxe izango da energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren zerga oinarria: instalazio bakoitzean zergadunak zergaldian sortu eta sistema elektrikoan sartutako energia elektrikoagatik (zentral barretan neurtuta) zergadunak jaso beharreko guztirako zenbatekoa, sisteman azken hiruhileko naturalean sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsariak kenduta.

Azken hiruhilekoko ordainketa zatikatuen zenbatekoa kalkulatzeko oinarria zergaldian sortutako energia elektrikoaren (zentral barretan neurtuta) balioa izango da; kopuru horretatik azken hiruhileko naturalean sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsariak kenduko dira eta emaitzako zenbatekoari uztailaren 9ko 24/2014 Foru Arauak, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergarenak, 8. artikuluan ezartzen duen karga tasa aplikatuko zaio eta gero aurretik egindako ordainketa zatikatuen zenbatekoa kenduko da.

Bi. 2019ko ekitaldian energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren zerga oinarria eta ordainketa zatikatuen zenbatekoak kalkulatzeko aplikatuko diren arauak.

2019ko ekitaldian hauxe izango da energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren zerga oinarria: instalazio bakoitzean zergadunak zergaldian sortu eta sistema elektrikoan sartutako energia elektrikoagatik (zentral barretan neurtuta) zergadunak jaso beharreko guztirako zenbatekoa, sisteman lehen hiruhileko naturalean sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsariak kenduta.

Ordainketa zatikatuen zenbatekoa kalkulatzeko oinarria zergaldiaren hasieratik aurreko idatz zatian aipatzen den hiru, sei, bederatzi edo hamabi hileko aldia amaitu arte sortutako energia elektrikoaren (zentral barretan neurtuta) balioa izango da; kopuru horretatik lehen hiruhileko naturalean sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsariak kenduko dira eta emaitzako zenbatekoari uztailaren 9ko 24/2014 Foru Arauak, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergarenak, 8. artikuluan ezartzen duen karga tasa aplikatuko zaio eta gero aurretik egindako ordainketa zatikatuen zenbatekoa kenduko da.

Bigarrena. Otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, zerga bereziak arautzen dituen, aldatzea.

Aldaketa batzuk egiten dira zerga bereziak arautzen dituen otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuan; hona:

Bat. 14. artikuluko 1. idatz zatiko bigarren paragrafoa aldatzen da eta honela geratzen da:

“Araugintzako dekretu honen 50.4 artikuluan azaltzen den bezala egiten diren gas naturalaren hornikuntzetan, sortutako kuoten zenbatekoa azken kontsumitzaileak adierazitako behin-behineko ehuneko baten arabera jasanarazten duten subjektu pasiboek jasanarazitako kuoten zenbatekoa erregularizatu beharko dute gas naturalaren helburuko behin betiko ehunekoaren arabera, horren berri jakin eta gero. Horretarako prozedura arautegian ezarriko da.”

Bi. 50. artikuluko 1. idatz zatiko 1. tarifako 1.16 eta 1.17 epigrafeak ezabatzen dira.

Hiru. 50. artikuluko 4. idatz zatia aldatzen da eta honela geratzen da:

“4. Hornikuntza puntu bakarra duten instalazioei gas naturala hornitzen zaienean erregai modura erabiltzeko, erabilera profesionaletarako zein beste erabilera batzuetarako, artikuluko honetako 1. idatz zatiko 1.10.1 eta 1.10.2 epigrafeetan arautzen diren zerga tasak aplikatuko dira,

kasuan kasukoa erabilera bakoitzaren ehunekoaren arabera. Horretarako prozedura arautegian ezarriko da.”

Lau. 51. artikuluko 2. idatz zatiari c) letra gehitzen zaio; hona:

“c) Elektrizitatea zentral elektrikoetan ekoiztea, edo sorkuntza konbinatuko zentraletan elektrizitatea edo elektrizitatea eta beroa batera sortzea.

Salbuespen hau aplikatzeko honako hauek hartu behar dira kontuan: “Zentral elektrikoa”: Energia elektrikoa ekoizteko instalazioa da. Jarduera hori Sektore elektrikoaren azaroaren 26ko 24/2013 Legearen aplikazio eremuan dago; ezartzeko eta jarduteko Legeak IV. tituluan arautzen dituen baimenak behar dira.

“Sorkuntza konbinatuko zentrala”: Energia elektrikoaren ekoizpenerako edo energia elektrikoa eta gero aprobetxatu ahal izateko bero erabilgarria biak batera sortzeko instalazioa da. Jarduera hori Sektore elektrikoaren azaroaren 26ko 24/2013 Legearen aplikazio eremuan dago; ezartzeko eta jarduteko Legeak IV. tituluan arautzen dituen baimenak behar dira.

Salbuespenaren aplikazioa bulego kudeatzaileari eskatu behar dio elektrizitatea ekoizteko zentralaren edo sorkuntza konbinatuko zentralaren titularrak, eta bulego horrek baimena eman behar du.”

Bost. 54. artikuluko 5. idatz zatia ezabatzen da.

Sei. 55. artikuluko 2. idatz zatiko d) letra ezabatzen da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean sartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2018ko urriaren 7tik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen arautegian ezarritakoaren arabera berretsi edo baliogabetu dezaten.

Gasteiz, 2018ko azaroaren 13a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ